

HISTOLOGIA (3puntu)

Azaldu zer den ehun bat, ehun motak, bakoitzaren ezaugarriak, funtzioak eta adibideak.

Nola sortzen dira kolagenozko zuntzak eta zein da hauen ibilbidea?

Marraztu eta azaldu trafiko besikularra eta garraio besikulen inbaginazioa eta fusioa.

Marraztu eta azaldu proteinen homeostasia (UPR)

Azaldu Lac Operonaren funtzionamendua.

DEFINIZIOAK (3 aukeratu)

- | | |
|---------------|-------------------------|
| -Liptiotenoa | -Protoonkogene |
| -Seneszentzia | -Onkogene |
| -Homeostasia | -Minbizi gen supresorea |
| -Neoplasia | -Okazaki zatiak |

TEST:

1. Zein da zelularen osaeran ugariena den konposatua?

- a) Proteinak
- b) Karbohidratoak
- c) Ura
- d) DNA

2. Zein ezaugarrik bereizten du zelula eukarioto bat prokarioto batetik?

- a) Mintz plasmaticoa
- b) Nukleo definitua

- c) Zitoplasma
- d) DNA edukitzea

3. Zein da Teoria Zelularren oinarrietako bat?

- a) Organulu guztiek DNA dute
- b) Zelulak ez dira ugaltzen
- c) Zelula bizidunaren oinarritzko unitatea da
- d) Zelulak proteinaz osatuta daude

4. Zein mintz-eredu proposatu zuten Singer eta Nicholson-ek?

- a) Lipido laua
- b) Jariakorra eta asimetrikoa
- c) Horma zurruna
- d) Glukokaliza homogeneoa

5. Zein mikroskopia mota da egokiena bizirik dauden zelulak ikusteko?

- a) Mikroskopia elektroniko transmititzailea
- b) Mikroskopia fokukidea
- c) Fase kontrastedun mikroskopia optikoa
- d) Mikroskopia fotonikoa

6. Zein da kloroplastoaren funtzio nagusia?

- a) ATP sintesia
- b) Fotosintesia
- c) Glukogenoaren sintesia
- d) Entzimen degradazioa

7. Zein da zitoeskeletoaren funtzioa?

- a) Lipidoen sintesia
- b) ATP ekoiztea
- c) Itxura eta mugimendua ematea
- d) Proteinen sintesia

8. Nola esaten zaio erribosoma ugariz estalitako erretikulu endoplasmatikora?

- a) Golgiren aparatua
- b) Erretikulu endoplasmatico leuna
- c) Erretikulu endoplasmatico pikortsua
- d) Lisosoma

9. Zein da zelula animalien eta landareen arteko ezberdintasunik nabarmenena?

- a) Mintz plasmatikoa
- b) Zitoplasma

- c) Kloroplastoak
- d) Nukleoa

10. Zer da mitokondrioaren funtzio nagusia?

- a) RNAREN sintesia
- b) Lipidoen sintesia
- c) ATPren ekoizpena
- d) Entzimen degradazioa

11. Zein da garraio pasiboaren ezaugarria?

- a) Energia kontsumoa
- b) Kontzentrazio-gradientearen aurka
- c) Energia gabe gertatzen da
- d) Molekula handiak bakarrik mugitzen ditu

12. Zer da flip-flop mugimendua?

- a) Ionen igarotzea mintzaren bidez
- b) Proteinaren translokazioa
- c) Lipidoen alde batetik bestera igarotzea
- d) Zelulen fusioa

13. Zein prozesuk sartzen ditu molekula handiak zelularen barrura?

- a) Exozitosis
- b) Osmosis
- c) Endozitosis
- d) Difusioa

14. LDL partikulen sarrera zelulan zein prozesuren bidez gertatzen da?

- a) Fagozitosia
- b) Hartzaile bidezko endozitosis
- c) Transzitosia
- d) Pinozitosia

15. Zein proteinek mugitzen dituzte molekulak ATP erabiliz?

- a) Glukolipidoak
- b) Kanal proteinak
- c) ATPasak
- d) Konexinak

16. Zer da gap junction edo nexua?

- a) Kloroplastoaren zati bat
- b) Zelulen arteko seinale kimiko bat

- c) Zelulen arteko komunikazio kanal bat
- d) Lisosomaren barruko entzima

17. Zer dira zitokinak?

- a) Zelulen energia ekoizleak
- b) Lipido eramaileak
- c) Komunikazio proteinak
- d) Entzima inhibitzaileak

18. Zein seinale mota jariatzen du zelula berak eta bere buruari eragiten diona?

- a) Endokrinoa
- b) Parakrinoa
- c) Autokrinoa
- d) Exokrinoa

19. Zer da hemidesmosoma baten funtzioa?

- a) Mitokondrioa nukleoari lotzea
- b) Zelulak xafla basalera lotzea
- c) ATP ekoiztea
- d) ADN babestea

20. Zer proteina erabiltzen dute desmosomek zelulak elkartzeko?

- a) Integrinak
- b) Klatrinak
- c) Kaderinak
- d) Aktinak

21. Zein da lisosomaren funtzio nagusia?

- a) Glukosa ekoiztea
- b) Proteinak sintetizatzea
- c) Molekulak degradatzea
- d) Seinaleak igortzea

22. Zein organuluk burutzen du proteinen tolespena eta glikosilazioa?

- a) Mitokondrioa
- b) Golgi aparatua
- c) EEL
- d) EEP

23. Zer elementuk dauka RNAr eta proteinaz osatutako bi azpiunitate?

- a) Mitokondrioa
- b) Erribosoma

- c) Golgi
- d) Nukleoloa

24. Nola sortzen dira lisosomak?

- a) Mitokondriotik
- b) Nukleotik zuzenean
- c) Golgi aparatuan hidrolasak paketatzean
- d) Peroxisometik

25. Zein mintz-mota du peroxisomak?

- a) Bikoitza
- b) Ez du mintzik
- c) Mintz bakarra
- d) Xafla nuklearra

26. Zein da Golgi aparatuen zeregin nagusietako bat?

- a) ATP sortzea
- b) Lipidoen degradazioa
- c) Proteinak glikosilatzea eta paketatzea
- d) ADNaren erreplikazioa

27. Zein egituratan dago DNA bakterioetan?

- a) Nukleoan
- b) Nukleoidean
- c) Golgi aparatuan
- d) Kloroplastoan

28. Zein da kloroplastoen genoma propioa izatearen ondorio nagusia?

- a) Ez du proteinarik sintetizatzen
- b) Autonomia da guztiz
- c) Bere proteinak sortzeko gai da neurri batean
- d) Ez du ATP ekoizten

29. Zer da zitosola?

- a) Nukleo barruko ingurunea
- b) Zitoplasmako ingurune likidoa
- c) Zitoeskeletoa
- d) Barne-mintz sistema

30. Zer da nukleoloa?

- a) RNAm-ren sintesi gunerik nagusia
- b) ADN mitokondrialaren gordailua
- c) Erribosomen sintesi gunerik nagusia
- d) Zitoeskeletoaren parte bat

31. Zer da "Pulse-chase" esperimentua erabiltzen dena ikertzeko?

- a) Zelulen komunikazioa
- b) Proteinak nora garraiatzen diren
- c) ATP-ren ekoizpena
- d) Mintz plasmaticoaren jarioakortasuna

32. Zein molekula erabiltzen du erretikulu endoplasmatico leunak detoxifikaziorako?

- a) Kolesterolak
- b) Glizerola
- c) Mikrosomal sistema
- d) Urea

33. Zein ezaugarri bereizten ditu mikrobioskak?

- a) ATP sortzen dute
- b) Barne mintz bikoitza dute
- c) Xurgapen azalera handitzen dute
- d) Desmosoma batzuen parte dira

34. Zein da peroxisomen funtzio espezifikoa?

- a) ATP sintetizatzea
- b) DNA erreplikazioa
- c) H_2O_2 sortzea eta degradazioa
- d) Hormonen ekoizpena

35. Zer proteina behar da transmintz proteina bat mintzean txertatzeko?

- a) Aktina
- b) SRP eta translokatozaileak

- c) Klatrina
- d) Glukoproteinak

36. Zein da nukleoaren eta zitoplasmaren arteko garraioaren eragilea?

- a) Mitokondrioa
- b) Exportina/importina sistemak
- c) Desmosomak
- d) Kromosomak

37. Nola daude DNA molekulak antolatuta zelula eukariotoetan?

- a) Nukleosomatan
- b) RNA molekulatan
- c) Lipido-geruzetan
- d) Aminoazido sekuentzietan

38. Nondik jasotzen du Golgi aparatua proteina?

- a) Mitokondrioetatik
- b) Peroxisometatik
- c) Erretikulu endoplasmatikotik
- d) Lisosometatik

39. Zein osagai dago nukleoloan?

- a) Fosfolipidoak
- b) Mitokondrioak
- c) RNAr kodetzen duen kromatina
- d) Lisosomak

40. Zer proteinak osatzen dute xafla nuklearra?

- a) Aktina eta miosina
- b) Tubulina eta dinteina
- c) A eta B laminak
- d) Konexinak eta kaderinak

41. Zergatik da mitokondrioko barne-mintza tolestua?

- a) DNA babesteko
- b) Beroa sortzeko
- c) Azalera handitzeko eta ATP gehiago sortzeko
- d) Entzimak gordetzeko

42. Zer da nukleoporoaren egitura bereizgarria?

- a) Zirkularra eta proteinaz osatua
- b) Oktagonala eta 100 proteina inguruk osatua
- c) Helikoidala eta lipidoz osatua
- d) Bakarra eta zitosolean integratua

43. Zer funtzio du dolikolak?

- a) ATP-ren sintesia
- b) Lipidoen degradazioa
- c) Oligosakaridoak proteinetara transferitzea
- d) RNAr sintetizatzea

44. Zer esker da mintz plasmatikoa jariakorra?

- a) Kolagenozko loturei
- b) Lipidoen eta proteinaren higidura lateralari
- c) ATPari
- d) Zitoeskeletoari

45. Zein dira mintz plasmatikoko proteina periferikoen ezaugarriak?

- a) Lipido-geruza zeharkatzen dute
- b) Kanpoko aldean kokatuta daude
- c) Uretan disolbagarriak dira eta ez dira sartzen mintzean
- d) Hidrofoboak dira eta barruraino sartzen dira

46. Zer funtzio du glukokalizak?

- a) Energia ekoiztea
- b) Entzimak degradatzea
- c) Zelulen arteko atxikipena eta babesa
- d) RNAr sintetizatzea

47. Zer seinale hartzen dute erretikulu endoplasmatikoko proteinak glikosilatzeko?

- a) ATP
- b) Dolikola
- c) Glukokaliza
- d) Konexina

48. Zein da klatrinaren eginkizuna endozitosian?

- a) Molekulak degradatzea
- b) Besikulen estaldura eratzea
- c) Proteinak tolestea
- d) ATP sintetizatzea

49. Zer da termogenina?

- a) Entzima digestibo bat
- b) Proteinak glikosilatzeko dituen entzima
- c) Protoi gradientea bero bihurtzen duen proteina
- d) Proteina sintetizatzen duen zuntz

50. Zer da nexuen (gap junction) osagai nagusia?

- a) Integrinak
- b) Klatrina
- c) Konexinak
- d) Glukoproteinak

51. Erreplikazioa ze norabidetan ematen da?

- a) 5' 3'
- b) 3' 5'
- c) 3 5
- d) 5 3